



## ARRAZTALO KONTSUMO TALDEA

*Ongi etorri ekologia eta gizarte integrazioa batzen dituen proiektura*



*2016ko uztaila*

Gida honetan kontsumo taldean parte hartzeko informazioa aurkituko duzu.

## Taldearen sorrera

Oiartzungo Arraztalo kontsumo taldeak berezitasun bat du: **gizarte integrazioa** eta **ekologia** batu ditu.

Izan ere, batetik, Oiartzungoak eta ekologikoak diren produktuen kontsumoa bultzatzea eta, bestetik, Arraztalo kolektiboko gaixo mentalen lan integrazioa ahalbidetzea eta gaixo horien eta herritarren arteko harremanak sortzea eta indartzea dira helburuak.

Kontsumo taldeak Arraztalo izena duen arren, Arraztalo berez, Oiartzungo gaixo psikikoen elkarte da. Gure elkartearen baratza ekologikoen proiektuaren baitan sortu zen kontsumo taldea, ekoiztutako barazki ekologikoei irteera emateko. Talderako kideak erakartzeko hitzaldi bat antolatu zen herrian eta 2010eko urrian martxan jarri ginen, 15 bat kiderekin. Orain 35 kide gara eta 4 gaixo psikiko daude baratzean lanean.

Beraz, kontuan eduki taldean parte hartzen dugunok barazki ekologikoak kontsumitu ez ezik, gaixo mentalen lan eta gizarte integrazioan laguntzen dugula zuzenki.

## Taldearen funtzionamendua

Taldea martxan mantentzeko honako lanak egin behar dira:

- Egunean bertan saskien banaketa egin, jasotzen dutenen izenak hartuz. Hau langileek egiten dute.
- Kontsumo taldeko altak eta bajak kontrolatu eta informazio oharrak prestatu eta banatu. Korreo elektronikoa kudeatu. Gaur egun hau bolondres batek egiten du.
- Ordainketak kudeatu. Gaur egun hau bolondres batek egiten du.
- Arrautza eta gaztaren eskariak jaso, kobratu, banaketa egin eta ekoizleari eskaera bidali. Gaur egun hau denon artean egiten da. Zortziko taldeak egiten dira eta urteko hilabete batzuk ematen zaizkio taldeari. Hilabete horietan taldeko partaideek erabakitzen dute astelehenak nola banatu (bakoitzak bi astelehen egin behar ditu). Eskaera hartuta ekoizleari ere deitu behar zaio. Lan honek gutxi gorabehera urtean bi egunetan ordu erdiko dedikazioa eskatzen du, banaketan egoteko.

## Asteroko otarrak

Hilero kuota bat ordaintzen da eta astelehenero jasotzen ditugu otarrak, Doneztebe plazako Kilirikupen, arratsaldeko 18:00etan. **Otarra itxia** da, hau da, ekoizleak baratzean dituen garaian garaiko barazkiz osatutako otarra da eta kide guztientzako berdina da.

Otarren banaketan baratzean lana egiten duten gaixo mentalak eta beraien monitoreak egoten dira, hartara gaixoen sozializazioa lantzen da.

Oinarrizko otarraz aparte, beste produktu batzuk eskatzeko aukera dago. Eskaera hauek kuotatik kanpo ordaintzen dira, aurreko astean eskaria eginez. Produktu horiek inguruko baserritarrenak eta, ahal den heinean, modu naturalean ekoiztutakoak:

- Arrautzak: Gurutzeko Peluzar baserriko arrautza ekologikoak dira. Astero eskatu daitezke eta ordainketa aurrez egiten da hurrengo asterako.
- Gazta, ezti, ardi esnea: Ergoiengo Galtzata baserriko gazta da. Artzaina bi astetik behin etortzen da eta arrautzen eskariak jasotzen dituen pertsonari egin behar zaio eskaria. Ordainketak artzainak berak kudeatzen ditu.
- Sagardoa: Arraztaloko langileak egindako sagardo naturala da. Sagar ekologikoekin, inolako kimikarik gabe eta ilargi faseak kontuan hartuta ekoiztutakoa.
- Babarrunak: Arraztalon ekoiztutako babarrunak ez dira saskian sartzen eta aparte ordaindu behar dira.

Kide batek otarra ezin badu jaso eta bere ordeztu inor ezin badu bidali jasotzera (oporretan dagoelako edo beste arrazoi bategatik), aldeztu aurretik abisatu behar du, hartara ez da otarra prestatuko. Azken uneko ezusteko bat suertatu bazaio eta otarra jasotzera ez bada hurbiltzen, bere otarra langile edota barazki banaketako ardura dutenen artean banatuko da. Jasotzen ez diren otarrak ez dute hileko kuotan murrizpenik eragiten. Hileroko kuota finkoa da.

## Abuztuko antolaketa

**Abuztuan** barazketako langileek oporrak hartzen dituzte eta barazkien bilketa taldekideen esku geratzen da. Orain arte astean bi egun jarri izan ditugu barazketara barazkiak biltzera joateko. Azaltzen garen kideok jasotzeko moduan dauden produktuak bildu eta denon artean banatzen ditugu. Ekintza hau garrantzitsua izaten da, batetik, abuztua izaten delako uzta

oparoena dagoen hilabetea, eta bestetik, taldekideok baratzako lana bertatik bertara bizitzeko aukera dugulako.

## Taldearen ekintzak

Urtean bitan (udaberrian eta udazkenean), gutxienez, **bilerak** antolatzen dira uztari eta taldearen egunerokoari buruz hitz egiteko. Bilera horietan saskiei buruz iritzia emateko aukera dago, eta oso garrantzitsuak izaten dira, bertan hartzen baitira erabaki garrantzitsuenak.

Gainera, baratzetatik **bisitak** antolatzeko aukera dago. Horrela, taldekideek produktuak non eta nola ekoizten diren ikusten dute eta gaixo mentalen eguneroko lanera hurbiltzen dira. Batzuetan, bisita horiek bilerak eta afari-meriendak egiteko ere aprobetxatu izan ditugu.

Baratzean **auzolanerako** elkartzea da taldeko beste ekintzetako bat. Kideak baratzeko lana gertutik bizitzeko aukera ematen du eta denon artean momentu jakin bateko lana errazago egiteko balio izaten dute. Martxan daramagun denboran auzolan ekintza bakarra egin dugu: udazkenean sagardiko sagarrak jasotzea.

Arraztalo Kontsumo Taldean **herriko ekimenetan** ere parte hartzen dugu. Ekimen horien artean nagusienak honakoak dira:

- Xanistebanetako baserritar egunean barazki eta jaki azoka. Abuztuaren 4ean produktu ekologikoen azoka jartzen dugu. Etxean egindako jakiak ere saltzen ditugu. Hau antolatzeko Xanistebanetako Jai Batzordean parte hartzen dugu. Sagardo lehiaketan eta pintxo lehiaketan ere izaten gara.
- Oiartzungo Txerri Egunean (Santo Tomas). Xanistebanetan bezala barazki eta jaki postuak edukitzen ditugu.
- Santiyotan (Iturriozko jaiak) barazki postua.

Herrian antolatzen diren ekintza hauek prestatzeko kontsumo taldeko kideen laguntza eskatzen da, postuan egoteko, jakiak etxean prestatzeko edo barazkiak biltzeko.

**Hitzaldiak** eta **sukaldaritza ikastaro** bat ere antolatu izan ditugu. Gure asmoen artean dago barazki errezeta liburuxka bat egitea, sukaldaritza, kontserba, marmelada... ikastaroak egitea.

Azkenik, Arraztalok **Basherri** sarean parte hartzen du. Basherri sarea, Gipuzkoako kontsumo talde eta ekoizleak biltzen dituen taldea da. Guztien arteko koordinazioa, ikastaroen antolaketa eta produktuen salmenta ditu helburuen artean. Gipuzkoako beste kontsumo taldeek saltzen dituzten produktuak ere erosi daitezke. Horretarako katalogo bat osatu da eta txosten honekin batera aurkituko duzu.

## Informazio praktikoa

### Harremanetarako

#### Telefono zenbakiak

617 58 57 24 (Jon, altak, bajak eta gai orokorrak) / 634 25 46 70 (Pedro, Diruzaina) / 606 62 52 29 (Iñaki, Baserritar-Monitoreo) / Whatsapp taldea ere badugu, sartzeko eskatu mezu elektronikoa bidaliz!

#### Helbide elektronikoa

- Kontsumo taldeko gaiak: [arraztalo.kt@gmail.com](mailto:arraztalo.kt@gmail.com)
- Gai orokorrak, Arraztalo Elkartera: [arraztalo@gmail.com](mailto:arraztalo@gmail.com)

#### Informazio gehiago

- Arraztalo Elkartea: <http://arraztaloelkartea.wordpress.com/>
- Gure [facebook](#) eta [twitter](#) kontuak jarrai ditzakezu.
- Basherri Sarea, Gipuzkoako Baserritar eta Herritarren Topagunea: <http://basherri.wordpress.com/>
- Barazki errezetak: <http://quehagoconmicestadeverduras.wordpress.com/>

#### Posta arrunta

- 17. posta kutxa, 20180 Oiartzun (paperezko posta hemen jasotzen da)

### Egoitzen eta baratzen kokalekua

#### Egoitzak

- Egoitza soziala (bilerak eta beste ekintzak): Martintxo kalea 1, Altzibar auzoa. 20180 Oiartzun.
- Biltegia: Larrezabaleta 15-1. Arragua auzoa. 20180 Oiartzun.

#### Baratzak ([ikusi mapa blogean](#))

- Petra Lekuona (Zaharren egoitzaren ondoan)



- Kasablanka, Altzibar (Altzibar eta Ergoien arteko errepide bazterrean)



- Ergoien (Tolare jatetxearen parean)



## **Ordainketak**

Hileroko kuota 50€ dira, lau saski hilean. Hilabete batzuk bost astelehen dituztenez, astelehen batzuetan ez da saskirik izaten. Hala ere hau momentuko eta oporren antolaketaren arabera erabakitzen da.

Gainera, lehenengo hilabetean 10€-ko sarrera kuota bat ordaindu behar da. Beraz lehenengo hilabetean 60€ ordaindu behar dira. Ahal izanez gero, ordainketa lehen hamabostaldian egitea eskertuko genuke. Ordainketa honako kontu korrontean egin behar da:

**KUTXABANK K/K: ES57 2095 5060 1810 6393 3658**

**OHARRA:** ordainketa egiterakoan, Arraztalok jasoko duen kontzeptuan, **EZ** jarri "barazkiak", "Arraztalo" edo antzekorik, bestela ezin izango dugu zure ordainketa identifikatu. Kontzeptu atalean zure izena eta ordainketari dagokion hilabetea jarri mesedez.

Hilabetero ordaindu orde 2 edo 3 hilabeteko ordainketa eginez gero, jarri zure ordaintzen dituzun hilabeteen zenbakiak edo hiruhilekoaren zenbakia (adibidez, apiriletik ekainera ordaintzen baduzu, izenaren ondoren "Apirila-ekaina" edo "apirila-maiatza-ekaina").